

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 32,7 egin zuten gora 2021eko abuztuan

2021eko lehen zortzi hiletan, esportazioen metatua 16.350 milioi eurokoa izan da; urte arteko % 23,9ko igoera izan du

Euskal AEn ondasunen **esportazioek** % 32,7ko igoera izan zuten **2021eko abuztuan**, Eustaten datuen arabera. Produktu energetikoen esportazioek % 292,6 egin zuten gora, eta produktu ez-energetikoenek (balio osoaren % 91), % 24,6.

“Garraio-materiala”ren gorakada (% 51,5), “Metalena eta haien manufacturena” (% 33,2), “Produktu kimikoena” (% 108,5) eta, bereziki, “Produktu mineral eta energetikoena” (% 261,5) dira nabarmentzekoak. Oro har, esportazioek 1.698 milioi euroko balioa izan zuten; aurreko urtean, 1.279 milioi eurokoa izan zuten.

Inportazioek % 50,1eko hazkuntza izan zuten 2021eko abuztuan (1.645 milioi eurotik gora). Inportazio *energetikoe*k % 120,6 egin zuten gora eta *ez-energetikoe*k, % 33,0.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 Abuztua

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Abuztua			Abuztua		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.279.107	1.697.775	32,7	1.095.827	1.645.059	50,1
PRODUKTU ENERGETIKOAK	38.969	152.989	292,6	214.552	473.295	120,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.240.137	1.544.786	24,6	881.274	1.171.764	33,0
URTEKO METATUA	13.197.694	16.350.323	23,9	10.269.314	13.021.727	26,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	683.392	824.655	20,7	2.044.829	2.618.710	28,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	12.514.302	15.525.668	24,1	8.224.485	10.403.017	26,5
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	245.313	375.798	53,2	253.043	265.336	4,9
URTEKO METATUA	3.812.814	4.669.826	22,5	2.277.434	2.886.407	26,7
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	499.089	756.689	51,6	585.534	1.046.002	78,6
URTEKO METATUA	5.031.146	6.575.159	30,7	5.705.304	7.234.686	26,8
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	534.704	565.288	5,7	257.250	333.721	29,7
URTEKO METATUA	4.353.733	5.105.338	17,3	2.286.577	2.900.634	26,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Esportazioetan hazkuntzarik handiena **Arabari** izan da (% 53,2), “Garraio-materiala”aren igoeraren (% 179,2) ondorioz. Hazkuntza, **Bizkaian**, % 51,6koa izan zen, “Produktu mineral eta energetiko”en igoeraren (% 278,6) ondorioz –114,2 milioi egin zuten gora, eta, hil horretan, lurralde horrek esportatutako guztiaren % 20,5 izan ziren– eta “Metalen eta haien manufacturen” ondorioz (% 58,8). **Gipuzkoan**, balantzea ere positiboa izan zen. Esportazioek % 5,7 egin zuten gora, honako hauen hazkuntzan oinarrituta: “Metalak eta haien manufacturak”, % 9,3; “Materiala, makinak

eta aparatu elektrikoak”, % 7,1, eta “Papera eta haren manufakturak”, % 47,4. Esportazioek gora egin zuten, “Garraio-materialak” behera egin arren ere (–% 13,5), 15,9 milioi gutxiago esportatu ziren, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

Inportazioak direla eta, **Bizkaian** izan zen igoerarik handiena (% 78,6), “Produktu mineral eta energetiko”en erosketen igoeraren (% 117,1) eta “Metalen eta haien manufakturen” igoeraren ondorioz (% 141,9). Bilakaera, **Gipuzkoan**, % 29,7koa izan zen, funtsean “Metalen eta haien manufakturen” (% 37,4) eta “Material, makina eta aparatu elektrikoak” igoeraren (% 36,5) ondorioz. **Arabian** ere, balantzea positiboa izan zen; izan ere, ondasunen erosketek % 4,9 egin zuten gora, “Metalen eta haien manufakturen” igoerari (% 42,0) esker.

Jarduera-adarrak (A 86)

Jarduera-adar garrantzitsuenak aztertuta, eta esportazioak direla eta, nabarmentzekoa da abuztuan honako hauen gorakada: “Kokeria eta petrolio-fintzeak” (% 288,3), “Produktu siderurgikoak” (% 70,4) eta “Motordun ibilgailuen fabrikazioa” rekin zerikusia duten produktuen esportazioena (% 72,6). Azken jardueren adar horrek –lehen esportazioen rankingean– gora egin du hiru lurraldeetan, baina, batik bat, Araban (% 213,6); bertan, 2020ko abuztuan 47 milioi esportatu ziren eta, 2021ean, 147 milioi.

Inportazioak direla eta, hil horretan jardueren adar garrantzitsuenak, “Erauzketa- eta petrolio-industriak” (guztizkoaren % 22,5), % 125,3ko hazkuntza izan duela ikusten da, bai eta “Produktu siderurgikoak” (% 115,7) eta “Erabilera orokorreko makinariak” (% 30,8) ere.

Euskal AEko muga-zergeren partida esportatzaile nagusiak (milaka euro) (p). 2021eko abuztua

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.279.107	1.697.775	100	32,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	112.380	133.801	7,9	19,1
Petrolioaren olio finduak	29.644	131.200	7,7	342,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	70.479	77.072	4,5	9,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	19.508	59.678	3,5	205,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	10.264	52.381	3,1	410,3
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	36.183	45.621	2,7	26,1
Trenbideak edo antzekoak mantentzeko edo zerbitzatzeko ibilgailuak	3.461	41.304	2,4	1.093,3
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	-	34.454	2,0	-
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	21.181	31.433	1,9	48,4
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak	4.681	30.470	1,8	550,9
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	10.409	26.844	1,6	157,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	14.941	24.712	1,5	65,4
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	22.174	23.680	1,4	6,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	24.299	21.988	1,3	-9,5
Landu gabeko aluminioa	3.089	21.895	1,3	608,9
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	-	21.530	1,3	-
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	21.106	20.286	1,2	-3,9
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	21.989	19.889	1,2	-9,5
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	27.227	19.851	1,2	-27,1
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	14.030	17.192	1,0	22,5
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-etoak, burdinako edo altzairuko antzeko	13.475	17.019	1,0	26,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	9.737	15.983	0,9	64,2
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	11.146	15.484	0,9	38,9
Petrologasa eta gainerako hidrokarburu gaseosoak	2.138	14.252	0,8	566,5
Kraft papera eta kartoia, iztutatu edo estali gabea, bobina edo orritan	9.487	14.214	0,8	49,8

(p) Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunak emateko, tradizioan garrantzitsuenak izan diren hiru arantzel-partidatako esportazioen urte arteko igoerak egiaztatu dira: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 205,9), “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (% 410,3) eta “Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak” (% 19,1), denak automobilgintzaren sektorekoak, zeinak, hil honetan, 364 milioi euroan esportatu baitu (guztizkoaren % 21,5). Hala ere, partida horien hazkuntza handia gorabehera, bultzada esportatzaileak handiena “Petrolio-olio findu”etan gertatu da (% 342,6), 102 milioi euroan egin baitu

gora, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Igoera horretan iazko udan petroliotik eratorritako produktuen prezioen igoerak izan duen efektua neutralizatzen badugu, eta esportatutako tonak urte artean erkatzen baditugu, hazkuntza horrek (% 179,2) garrantzitsua izaten jarraitzen duela ikusten dugu; izan ere, 2020ko abuztuan 79.959 tona izan ziren eta, 2021ean, 223.209 tona.

Inportazioen kasuan, nabarmentzekoa da “*Petrolio edo mineral bituminosozko olio gordin*”etan izan dugun inportazioen igoera handia (% 109,5) eta honako hauetan izan dugun igoera nabarmena: “*Petrolio olio finduak*” (% 82,8), 2020an baino 15.746 tona gehiago –funtsean, “*Gasolioa*” eta, neurri txikiagoan, “*Fuelolioa*”–. Halaber, “*Petrolio-gas eta gasezko gainerako hidrokarburo*”en inportazioen hazkuntza bikaina nabarmendu behar da (% 437,6); urte artean 68.164 tonako igoera izan dute, eta 2020ko abuztuan baino 42 milioi euro gehiago. Halaber, potentziazio nabarmena izan dute honako hauek: “*Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak*” (% 143,5), “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” (% 190,0) eta “*Burdinazko mineralen zuzeneko murrizketaren bidez eskuratutako burdin produktuak*” (53.487 tona edo 2021eko abuztuan inportatutako 25 milioi).

Xede diren bezeroak

Abuztuan, bost herrialde (Frantzia, Alemania, Herbehereak, Erresuma Batua eta Ameriketako Estatu Batuak) izan dira Euskal AEren bezero nagusiak, Euskal AEko esportazioen guztizkoaren % 52 berenganatu baitute. Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 63,5 dagokio.

EUSKAL AEKO KANPO-MERKATARITZA. URTEKO METATUA

2021eko lehen zortzi hiletan, Euskal AEko ondasunen esportazioek % 23,9 egin zuten gora (3.153 milioi gehiago aurreko urtean baino), eta 16.350,3 milioi eurora iritsi ziren. Zifra hori 2019ko –pandemiaren aurreko urtea– aldi bereko zifra baino pixka bat txikiagoa da, orduan 16.741,2 milioi eurokoa izan baitzen.

Inportazioen metatua 13.021,7 milioikoa izan zen, alegia, aurreko ekitaldiko aldi berean erregistratutakoa baino 2.752,4 milioi gehiagokoa (% 26,8ko igoera).

Euskal AEko kanpo-merkataritzak, 2021eko lehen zortzi hiletan, 3.329 milioi euroko saldo positiboa izan du eta % 125,6ko estaldura-tasa.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila - Abuztua 2021

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Urtarrila - Abuztua			Urtarrila - Abuztua		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	13.197.694	16.350.323	23,9	10.269.314	13.021.727	26,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	683.392	824.655	20,7	2.044.829	2.618.710	28,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	12.514.302	15.525.668	24,1	8.224.485	10.403.017	26,5
ARABA/ÁLAVA	3.812.814	4.669.826	22,5	2.277.434	2.886.407	26,7
BIZKAIA	5.031.146	6.575.159	30,7	5.705.304	7.234.686	26,8
GIPUZKOA	4.353.733	5.105.338	17,3	2.286.577	2.900.634	26,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Bizkaia nabarmena izan zen aldi horretan, haren esportazio-jardueragatik; izan ere, urte arteko % 30,7ko hazkuntza izanik, ondasunen salmenten buru da (6.575 milioi euro). **Arabak** % 22,5eko hazkuntza izan du (4.669,8 milioi), eta **Gipuzkoak**, % 17,3koa (5.105 milioi).

Inportazioak direla eta, portaera berdintsuagoa izan zen hiru lurraldeetan: **Gipuzkoak** % 26,9ko igoera izan zuen, eta 2.901 milioi euroan inportatu zituen ondasunak; ondoren, **Bizkaia**, 7.235 milioi euroan eta % 26,8ko igoera, eta **Arabak**, antzeko ehunekoarekin (% 26,7) eta 2.886 milioiko ekarpenarekin Euskal AEko zenbateko osoan.

Produktuak

Produktu mota kontuan hartuta, *Produktu ez-energetikoek* (urte arteko 3.011 milioiko hazkuntza, % 24,1) lagundu diote gehien esportazioen hazkuntzari; *Produktu energetikoek* ere aurreko urtean baino 141 milioi gehiago izan dute (% 20,7).

Bestalde, *Produktu energetikoen* inportazioek % 28,1 egin zuten gora, eta *Produktu ez-energetikoenek*, % 26,5.

Xede diren herrialdeak

Euskal AEko esportazioen xede diren herrialdeen rankingeko buru, aldi honetan, Alemania da (esportatutako guztiaren % 16,6), ondoren Frantzia (% 15,8), Erresuma Batua (% 6,9), Estatu Batuak (% 6,0) eta Belgika (% 5,4). Bost herrialde horiek Euskadiko esportazioen erdia hartzen dute (% 50,6). Estatu horiei Italia (% 5,1), Herbehereak (% 4,8), Portugal (% 4,3), Txina (% 2,7) eta Polonia (% 2,4) gehitzen badizkiegu, 2021eko lehen zortzi hiletako metatua, guztira, 11.428,5 milioi eurokoa da, eta Euskal AEko esportazio guztien % 70.

Jarduera-adarrak (A 86)

Esportazio-bolumena dela eta jarduera-adar garrantzitsuenen artean “*Siderurgia*”rekin zerikusia duten produktuen igoera nabarmentzen da (% 39,2), zeinak gainditu egiten baitu ia 494 milioi euroan aurreko urtean esportatutakoa eta 1.753 milioi eurora iritsi baita.

Nabarmen hazi da, halaber, honako hauen esportazioa: “*Burdinazkoak ez diren metalak*” (% 60,2), “*Erabilera orokorreko makineria*” (% 22,5), “*Kautxuzko produktuak*” (% 22,5) eta, bereziki, “*Ontzigintza*” (% 1.217,9).

Esportazio-bolumen handieneko adarra “*Motordun ibilgailuen fabrikazioarekin*” zerikusia duten produktuen da (3.552 milioi eta guztizkoaren % 21,7), zeinak, 2021. urteko zortzigarren hila amaitzean, % 23,9ko hazkuntza metatua erregistratu baitu, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Inportazioen kasuan, nabarmentzekoa da adarrik garrantzitsuenak, “*Erauzketa- eta petrolio-industriak*” –petrolio gordina–, % 7,4 egin duela gora, eta bolumen aldetik atzetik dituenek ere gora egin dutela, batik bat “*Siderurgia*”k (% 44,9), eta, nabarmen, “*Kokeriak eta petrolio-fintzea*” adarrak (% 165,9) –petrolio findua–.

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunak ematean ikusten da esportazioen barruan 25 arantzel-partida nagusien artean batean baino ez dela egon hazkuntza-tasa negatiboa: “*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak*” (–% 24,8); gainerako arantzel-partidetan, tasak positiboak izan dira, eta, duten

garrantzia eta pisu berezia kontuan hartuta, nabarmentzekoak dira “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 21,7), “Salgaiak garraiatzeko automobilak” (% 23,9), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 17,5), “Petrolio-olio finduak” (% 16,3) eta, zehazki, “Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak” (% 36,8).

Inportazioen kasuan analisi bera egiten badugu, nabarmentzekoa da “Petrolio-olio findu”en erosketek izan duten gorakada handia (% 158,6); kontuan hartu den aldian, 643 milioi euro metatu ditu, aurreko urteko aldi bereko 249 milioien aldean. Alegia, 808 tonatik 1.458 tonara igaro da. Inportazioen kasuan ere, inportatutako 25 partida nagusietatik, batek baino ez du izan hazkuntza-tasa negatiboa: “Petrolio-gasa eta gasezko gainerako hidrokarburoak” (-% 8,7), zeinak 2020an 196,8 inportatu baitzituen eta 2021ean, 179,6 milioi; alegia, 1.039 tonatik 718 tonara igaro da.

Euskal AEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarrila - abuztua 2021


	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	13.197.694	16.350.323	100	23,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.116.839	1.359.131	8,3	21,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	841.174	1.150.623	7,0	36,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	763.989	946.233	5,8	23,9
Petrolioaren olio finduak	602.645	701.142	4,3	16,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	588.937	692.264	4,2	17,5
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	301.998	404.051	2,5	33,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	219.331	385.352	2,4	75,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	180.570	258.000	1,6	42,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	178.336	237.016	1,4	32,9
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	168.722	218.092	1,3	29,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	261.945	197.087	1,2	-24,8
Landu gabeko aluminioa	59.931	171.419	1,0	186,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	106.123	169.063	1,0	59,3
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	107.850	163.848	1,0	51,9
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	123.564	157.948	1,0	27,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	95.839	150.159	0,9	56,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	137.185	144.369	0,9	5,2
Ardoa, mahats freskoarena	119.851	143.503	0,9	19,7
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	79.657	141.080	0,9	77,1
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak....	121.245	137.728	0,8	13,6
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	114.785	137.424	0,8	19,7
zabalerakoak	43.080	133.556	0,8	210,0
Ontziak eta paketatze aparatua garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	100.553	133.148	0,8	32,4
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	123.742	131.690	0,8	6,4
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	114.927	129.784	0,8	12,9

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62